



Ref: **SEGURTASUNA**

Gaia - Asunto: **Prontuario 2023 2024**

Lakua-2324-002

Karpeta: **SEG-Kudeaketa 2023- 2024 (I)**

SARRERA

IRTEERA

NORK/ DE: Segurtasun- arloko arduraduna: Marivi Carazo Alcubilla
NORI/ A: IKASTETXE PUBLIKO GUZTIAK- Prebentzio ordezkariak

Zk. **349000**

Zuzendari / Segurtasun laguntzaile Jn. / And:

Larrialdien eta lan-istripuen eremuan laneko arriskuen prebentzioari dagozkion jardueren eta loturen laburpen eguneratua eskaintzen dizuegu.

LARRIALDI-PLANAK ETA SIMULAKROAREN ARIKETA :



Larrialdiak ez du ordutegirik. Larrialdi-simulakroa urteko jardura da, eta, ahal dela, ikasturteko lehen hiruhilekoan egingo da, eta nahitaezkoa da IUPn sartzea.

Esteka honen bidez **2023-2024: Simulakroaren ebaluazioa**

- 1.Larrialdi- eta ebakuazio-plana zehazten dugu
- 2.Ariketa egin ondoren simulakroaren ebaluazioa bidaltzen dugu

BOTIKINAK: Lehen laguntzetako materiala aldian-aldian berrikusiko da, eta iraungi edo erabili bezain laster berrituko da.

Edukia, eskaera eta berrezarpena [HEMEN](#)

LAN-ISTRIPUAK :



Osasun-laguntza eta jakinarazpena webeko eskemaren arabera egiten dira: **Segurtasuna-Lan-istripuak**

Adi:

- Ikastetxeko zuzendariak jakinarazpenean istripuaren **deskripzio-txostena** erantsi behar du, sinadura eta zigiluarekin.
- Laneko arriskuen prebentziorako zerbitzuari bjadun eta baja gabeko istripuak jakinarazteko:

- **Hezkuntza Saileko langileen istripuak**
- **Ikastetxean beste langile batzuen istripuak: Udala, Administrazio orokorra...**
- Ikastetxeko langileei egindako erasoak lan-istriputzat hartzen dira, nahita edo nahi gabe gertatzen badira ere, eta hauen jakinarazpena modu berean egin behar da

Kanpainak: ZUHURTZIAZ JOKATU eta EZ DA ZORTE-KONTUA. Vision ZER000

Jakinarazitako istripuen artean erorketak, irristadak eta estropezuek eta Trafiko-istripuek leku garrantzitsua betetzen dute; horregatik, SPRLk informazio eta prestakuntza hau jartzen du zuen eskura



Honekin batera doakizu aurtengo posterra, ikastetxean zabaldu ahal izateko

Lan-arloko bide-segurtasunari buruzko prestakuntza (11. edizioa): online, hitzarmena Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzarekin.
Esteka: [Izen ematea](#)

BESTE INFO GARRANTZITSU BATZUK :

- **LAPZ-ARI ZUZENDUTAKO ESKAERA :** [HEMEN](#)
- **SEGURTASUN-LAGUNTAILEA**

Ikastetxe bakoitzean langile bat izendatuko da, Prebentzio zerbitzuen araudiko 35. Artikuluak eskatzen duen dedikazioarekin eta arlo horretako oinarrizko prestakuntzarekin, Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuarekin **lankidetzan** aritzeko.

Prestakuntza on line ematen du Mutualiak. Segurtasun laguntzaileek egin beharreko ikastaroaren kodea

- 2001 Oinarrizko ikastaroa lan-arriskuen prebentziorako (30 ordu), hezkuntza-jarduera orokorrean (2023) (euskera)
- 2002 Curso básico en PRL (30 horas) general para la actividad de educación (2023) (castellano)

- **LAN ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO ON LINE-PRESTAKUNTZA**
Hezkuntza Saileko langileentzat. [HEMEN](#)

Dokumentu honekin zerikusia duen edozein kontsultarako: huisl098@euskadi.eus o 688670577.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 28a
SPRLko segurtasun-arloko arduraduna

 Marivi Carazo Alcubilla
 EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA SAILA
 DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN